

ASMAKIZUN JOLASAK

1. — Guztiok uste dugunez, 4 eta 5 ez dira zenbaki berdinak. Jarraiko eragiketa ezagun hauen bidez, ordea, $4=5$ dela frogatzen bide da.

$$-20 = -20 \quad 16 - 36 = 25 - 45$$

$$4^2 - 2 \cdot 4 \cdot \frac{9}{2} = 5^2 - 2 \cdot 5 \cdot \frac{9}{2}$$

$$4^2 - 2 \cdot 4 \cdot \frac{9}{2} + \left(\frac{9}{2}\right)^2 = 5^2 - 2 \cdot 5 \cdot \frac{9}{2} + \left(\frac{9}{2}\right)^2$$

$$\left(4 - \frac{9}{2}\right)^2 = \left(5 - \frac{9}{2}\right)^2$$

$$4 - \frac{9}{2} = 5 - \frac{9}{2}$$

$$4 = 5$$

Nola liteke hori?

2. — Zeintzu operazio edo eragiketa egin behar dira hiru «1» ekin, emaitzak «6» balio dezan.

3.—

9	8	7	6	5	4	3	2	1	0

Beheko aldean hutsik dagoen koadro bakoitza, zifra bakar batez bete behar da. Beheko aldean jarri behar den zifra bakoitzak, goian duen zifra beheko koadroetan zenbat aldiz agertzen den adierazi behar du.

Honela adibidez,

4
3

 ikusten badugu, beheko koadroetan hiru «4» daudela esan nahi da. Beteko ahal zenituzke hutsune guztiak?